

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2020ko oinarri arauak, Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren laguntzetarako

Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 13ko osoko bilkuran, onespena eman zien Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren laguntzetarako 2020ko oinarri araei.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorrak 9.3 artikuluan, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikuluan, eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira haiek, guztiek jakin ditzaten.

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza honen xedea da Donemiliagako udalerrian umeen jaiotza, adopzioa edo harreran hartzea dela-eta dirulaguntzak emateko baldintzak eta lege araubidea arautzea, udalerria osatzen duten herrietan belaunaldi berriak egongo direla ziurtatzeko asmoz.

2. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Hauek izan daitezke oinarriotan araututako laguntzen onuradun: umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian errolatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak (salbuespenez, onartuko da errolatzean eten bat izatea, baldin hiru hilabetetik beherako iraupena izan badu).

3. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK

– 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta errolatutako umeak izatea.

– 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne) Donemiliagako udalerrian errolatuta dauden adoptatutako edo harreran hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urte jarraian eraman behar ditu errolatuta, umea jaio, adoptatu edo harreran hartu aurretik, eta bai berak bai umeak errolatuta jarraitu behar du beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ondoren.

Hori gorabehera, salbuespenez, onartuko da laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, haurra jaio, adoptatu edo harreran hartu aurretik eta ondoren errolatzean eten bat izatea, baldin hiru hilabetetik beherako iraupena izan badu.

4. ARTIKULUA. JAIOTZAK, ADOPZIOAK ETA HARRERA ARAUBIDEA

Jaiotza, adopzio edo harreran hartutako bakoitzeko, dagokion dirulaguntza eskuratzeko eskubidea izango da.

Erditze, adopzio edo harrera hartze anitzetan, ume bakoitzeko emango da dirulaguntza.

5. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza 231 480001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da, 2.500,00 euroko zenbatekoarekin.

2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko (egun biak barne) jaiotzek, adopzioek edo harreran hartzeek laguntza jasoko dute, 500 euro, baldin eta ezarritako betekizun eta baldintza orokorrak betetzen badituzte.

Hori guztia, baldin eta aurrekontu partidarik badago. Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

6. ARTIKULUA. ESKAERAK, AGIRIAK ETA EPEA

Eskaerak eta agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Eskaerak 2020ko uztailaren 15era arte egin ahal izango dira.

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko, gehienez ere, 3 hilabete izango dira haiek aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak):

- Eskatzailearen NANA.
 - Haur bat adoptatuz gero, ebazpen judizialaren fotokopia edo adopzioa egin dela jasotzen duen antzeko agiriren bat.
 - Harreran hartuz gero, hura egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
 - Dirulaguntzaren eskatzailearen banku kontuko zenbakia, zeinean bera azalduko baita onuradun.
 - Familia liburua.
- Espedientea izapidetzen den bitartean, udaleko administrazio zerbitzuek ofizios jasoko dituzte agiri hauek espedientean:
- Laguntzen onuradunen errolda orria eta benetan bertan bizi direla egiaztatzen duen agiria, udal agiritegietan lor daitekeena, bai eta udalean zein egunetik aurrera dauden alta emanda dioen agiria ere.
 - Dirulaguntza eskaeraren arrazoia den haurraren errolda orria eta benetan bertan bizi dela egiaztatzen duen agiria.
 - Eskatzaileak udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

7. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA ORGANO ESKUDUNA

Udaleko zerbitzu teknikoek eskatzaileak laguntzaren onuradun izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatu eta gero, laguntza emateari buruzko proposamena aurkeztuko diote alkateari.

Proposamen hori aztertutakoan, bai eta Informazio Batzorde Orokorraren proposamena aztertutakoan ere, alkateak izango du dirulaguntza emateko eskumena.

8. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste herri administrazio batzuek xede bererako eman ditzaketan beste batzuekin.

9. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunek egunean eduki beharko dituzte beren betebeharrak ekonomikoak eta administrazioak udal honetako ogasunarekin, dirulaguntza ordaintzen zaien unean.

10. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK EZ BETETZEA

Oinarri hauetan ezarritako betekizunak ez betetzeak berekin ekarriko du ordaindutako diru kopuruak itzuli behar izatea.

11. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: toki araubidearen arautegia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; udalak onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

12. ARTIKULUA. KONFIDENTZIALTASUNA

Donemiliagako Udalak, Datu Pertsonalen Babesaren eta Eskubide Digitalen Bermearen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du zuk ematen dizkiguzun datuak Donemiliagako Udalaren ardurapeko tratamendu jarduera batean sartuko direla, zeinaren helburu baita horien ondoriozko administrazio espedienteak eta administrazio jarduerak izapidetzea eta kudeatzea. Ez da aurreikusten zure datuak hirugarrenei jakinaraztea, nahiz eta, haien edukiaren arabera, hartara legez behartuta egon gintezkeen. Halaber, eskubidea izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko. Eskubide horiek guztiak Donemiliagako Udalean egikarituko dira, Arabako Erdoña herriko (01208) Andia kaleko 9an edo posta elektroniko honetan: asanmillan.general@ayto.araba.eus. Azken helbide horretan argibide gehiago ere eskatu ahal izango duzu.

Erdoña, 2020ko ekainaren 10a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO